



**Arartekoren 2018R-128-17 Ebazpena, 2018ko azaroaren 14koa. Horren bidez, Ortuellako Udalari behar ez bezala hartutako udalaren ondasun bat berreskuratzeko dagozkion jarduerak egitea gomendatzen zaio.**

### Aurrekariak

1. (...)k kexa bat aurkeztu zuen erakunde honetan 2017ko urtarrilaren 24an. Kexa horretan, Ortuellako Udalak, hirugarren batek hartutako lursail publiko baten zati bat berreskuratzeko jardun falta salatu zuen.

Gai hori Arartekok izapidetutako beste bi kexa-espediteren xede izan zen dagoeneko (1040/2006/29 eta 83/2014/QC erreferentziak). Espediente horiek (...) sustatzaileak udalari lagatako lursail bateko zati baten okupazio pribatuari buruzkoa da. Lursail hori (...) etxebizitzak eraiki ostean soberan geratu zen.

Udalak emandako datuen arabera:

- Lursail hori, 397,73 m<sup>2</sup> azalera duena, Espazio Librean Tokiko Sistemari bideratua, 2008. urtean izena eman zuten Portugaleteko Jabetza Erregistroan.
- (...)ko (...). zenbakiko higiezinaren jabetzak lursail horren itxierari hasiera eman zion, okupazio horretarako titulurik gabeko pribatibo bezala.
- Udalak lursail horren aurretiko jabetza agindu ez zuenez, bidegabeki daukanak ez badu borondatezko moduan ematen, errebindikazio-akzioa ezarri beharko da, Kode Zibilaren 348. artikulua arabera.

Osoko bilkurak 2014ko ekainaren 26an hartutako erabakiak, gure esku-hartzearen ondorioz hartutakoa, honako hau zehazten zuen:

- (...) familiari udalarena den 8634 zenbakidun lursailean dagoen itxiera kentzeko errekerimendua egitea, betetzeko hilabete bateko epea emanez.
- Eskaera kontuan hartzen ez badute, egokiak diren egintzak jartzea oker okupatutako udal-titulartasuneko ondasunen jabetza lortzeko.

Arartekoren 2015eko apirilaren 14ko 2015IR-83-14 Ebazpenak hauxe ondorioztatu zuen: *“Ortuellako Udalak udal titulartasuna duen espazio librearen jabetza berreskuratzeko beharrezkoak diren ekintza judizialei hasiera ematea adostu du. Beraz, jardun horren bidez udal administrazioak ondare publikoaren defentsarako eskuragarri dituen bide legalak aktibatu dituela uste dugu.”*

Hala ere, kexa horien egileak gaia berriro ekarri du, espazio librearen okupazio-egoera hori ez delako aldatu. Beraz, Arartekok esku hartzea eskatzen du.





2. Arartekok, 2017ko otsailaren 3ko idazkiaren bidez, horri buruzko informazioa eskatu zion Ortuellako Udalari, 2014ko ekainaren 26an hartutako osoko bilkuraren erabakia ez gauzatzearen arrazoiak jakiteko. Udalak ez zionez erantzun, telefonoz zenbait kudeaketa eginda, 2017ko maiatzaren 3ko idazkiaren bidez, kexan adierazitako gaiaren egoerari buruzko erantzuna eman zezala eskatu zion formalki udalari.

Eskaera horrek ez zuen udalaren erantzunik jaso ere, beraz, telefonoz, gaiari buruzko informazioa lortzeko alferrekoak izan diren kudeaketa batzuk berriro egin ondoren, kexa aurkeztu zenetik denbora igaro denez, Arartekok espediente hau ixtea egokitzat jo du, eta gomendio bat egin dio Ortuellako Udalari, orain adieraziko diren gogoeten arabera.

### Gogoetak

1. Abiapuntu gisa, Arartekok gogorarazi behar du herri-administrazioak behartuta daudela interesdunek egiten dituzten eskaera guztiei berariaz erantzutera. Administrazioak behar bezala izapidetu behar ditu herritarrek aurkezten dituzten idazki guztiak, arin, biziki eta eraginkortasunez, erreklamatzeko den espediente behin betiko ebatzi edo amaitu arte.

Arartekoak sarritan salatu du administrazioaren isiltasuna oso kaltegarria dela, isiltasuna aplikatuz gero, herritarrek babesgabetasun egoeran geratzen direlako; izan ere, ez dakite beren eskaerei lotuta zer asmo duen administrazioak, eta eskatutakoari emandako erantzuna berrikustea galarazten du.

Biztanle horien erreklamazioak bideratu ez direnez eta horiei erantzun ez zaienez, esan dezakegu Administrazioak oker jokatu duela eta Ararteko erakundeak horren berri eman behar du.

Horrela, udalak, bere jarduerarik ezarekin, herritarrei zerbitzu eraginkorra emateko betebeharra ez du betetzen. Horrez gain, administrazio-jarduera zuzentasunez eta eraginkortasunez egin behar duen bidezko konfiantzari kalte egiten dio. Hori guztia botere publikoen jardura orok errespetatu behar dituzten printzipio orokorren aurka dago (Sektore Publikoaren Araubide Juridikoko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 3. artikulua).

Horrez gain, azpimarratu behar da eskaera bat egiten dela, udalak, ondare publikoa babesteko eta hirugarren batek legez kontra hartu duen lursail zati baten erabilera eta gozamen orokorra berreskuratzeko betebeharrak balia ditzan. Kexa-egileak duela 15 urte egiten ari den eskaera da.

2. Bestalde, gaiaren mamia jorratu aurretik, daukagun dokumentazioarekin eta informazioarekin aztertuko duguna, salatu behar dugu Ortuellako Udala ez zela erakunde honekin lankidetzan aritu. Jarduteko modu hori eskatzen diren datu,





agiri, txosten edo argibide guztiak, lehentasuna emanik eta al bait lasterren emateko legezko betebeharraren aurkakoa da (otsailaren 27ko 3/1985 Legearen –Ararteko erakunde hau sortu eta arautzekoaren- 23. artikulua).

3. Azkenik, kexan aipatzen den gaiaren funtsari dagokionez, Herri Administrazioen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 23. artikulua ondare publikoa babestu eta defendatzeko betebeharra xedatzen du. Aipatu xederako, Legeak dio herri-administrazioek behar bezala babestuko dituztela administraziook osatzen dituzten ondasunak eta eskubideak, erregistroko inskripzioa eskuratuko dute eta horretarako bidezkoak diren administrazio ahalmenak eta ekintza judizialak baliatuko dituzte.

Udalak, ondasunaren jabea ez zenez, eta aurretik ere horren jabe izan ez zenez, Kode Zibilaren 348.2. artikuluan ezarritako errebindikazio-egintza bide zibiletik hasi behar zuela adierazi zuen. Udalak emandako informazioa kontuan hartuz eta jurisprudentzia-doktrinari jarraituz, errebindikazio-ekintzak baldintza hauek betetzea eskatzen du:

- a) Gauzaren gaineko jabetza egiaztatzen duen titulu bat aurkeztu behar du Udalak, hau da, 397,73 m<sup>2</sup> azalera duen lursail baten lagapena, "Espazio Librean Tokiko Sistemarako" erabili duena aurrekarietan aipatzen duen enpresa sustatzaileak. Geroago, Udalak onartu behar du, eta azkenik, finka hori 2008. urtean erregistroan behar bezala inskribatu zela egiaztatu behar du.

- b) Errebindikatutako gauzak zehatza izan behar du, eta ongi mugatuta egon behar du. Argi eta zehatz adierazi behar dira kokapena, mugak eta edukiera, hau da, egiaztatu behar da errebindikatutako finka eta eskuratzea egiaztatzen duten agirietan edo frogetan jasotzen dena finka bera direla. Xede horietarako, Udalak ez luke zailtasunik izan behar frogatik aurkezteko, izan ere, hirigintza-betebeharren ondoriozko lagapen-titularen bidez zehaztutako lursaila da, eta Jabetza Erregistroan behar bezala erregistratuta dago.

- c) Egintza gauzaren jabetza dunenaren aurka zuzendu behar da, jabetza izateko eskubiderik ez duelako, edo errebindikatzen duenaren eskubidea baino eragin txikiagoko eskubidea duelako. Dagoen informazioaren arabera, Udalak, errebindikatzen duen ondasunaren jabea denaren xehetasun guztiak ditu.

- d) Demanda jasotakoari gauza itzultzea eskatu behar zaio.

Beraz, ez da ulertzen, Ortuellako Udalak, dagokion ondasunaren jabetza berreskuratzeko dagozkion egintza judizialak zailtzen duten arrazoirik ez ematea.





Horregatik guztiagatik, gomendio hau egiten dugu, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11 b) artikuluan ezarritakoaren arabera:

### GOMENDIOA

1. Dagozkion izapideak egin aurretik, egokiak diren ekintza judizialak balia ditzala, hirugarren batek legez kontra "Espazio Libreen Tokiko Sistemarako" hartutako 397,73 m<sup>2</sup> azalera duen lursaila berreskuratzeko.
2. Ortuellako Udalak bere administrazio-jardueran arduratsuagoa izan behar duela, eta Arartekoari nahitaez lagundu behar diola, Legebiltzarreko ordezkari gisa eta eskatutako lana eginez, administrazioaren legez kontrako ekintzak edo ekintza bidegabeak zuzentzeko duen eginkizuna eraginkortasunez bete dezan.

